

Ezpalak

JON TORNER

PuntuEus Elkarteak .eus domeinua lortzea du helburu



PASA DEN ASTEAZKENEAN aurkeztu zuten Euskaltzaindiko egoitzan PuntuEus elkarteak, Interneten .eus domeinua lortzeko lanean hasita dagoena. 2008ko apirilaren 2an eratu zen

elkartera, euskararen eta euskal kulturaren arloko hainbat talderen bultzadarekin. Besteak beste, bertan daude Euskaltzaindia, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Partaide Ikastolak, Euskal Herriko Unibertsitatea eta EITB. Katalanek 2005ean lortu zuten .cat domeinua, hizkuntza eta kulturak Interneten ikusgarri bilakatzeko lehen domeinua. PuntuEus elkarteak haiek diseinatutako bideari jarraituko dio. Interneten: www.puntuEus.org.


Aizpea Goenaga, Joseba Sarrionandia eta Mireia Gabilondo, eta Hortzmuga taldea dira euskarazko autore onenaren Max saria irabazteko hautagaiak. *Ezker eskuma* obragatik izendatu dute Goenaga, *Hmy Illa*-gatik Sarrionandia eta Gabilondo, eta *Superplast* lanagatik Hortzmuga. Max sariak Kanaria Handian (Espainia) banatuko dituzte martxoaren 30ean.

Luis Berrizbeitia abadiñoarrak irabazi du Arrasateko AED euskara elkarteak antolatutako XII. Jokin Zaitegi beka. 7.500 euroko laguntza jaso du Berrizbeitiak, Jean-Marie Gustave Le Clézio iazko Nobel Sariaren *Désert* liburua euskaratzeko.

● **Carlos Mugiro zinemagileak Euskonews & Media atarian:** «Orain pantaila asko daude, eta dagoeneko laugarren pantaila bati buruz hitz egiten da: zineaz eta telebistaz gain, ordenagailuak ditugu, eta orain telefono mugikorrak. Irudi zinematografikoak utzi egin dio irudiaren erreferente izateari; mundu osoan astebururo milaka miloi ikusleren begirada erakartzeko zuen indarra galdu egin du».

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian



Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Aire hari eme duzu

Hari biru. Maddi Oihenart. Elkar, 2007.
Musikariak: Juantxo Zeberio (Pianoa),
Txema Garcés (Kontrabaxua), Pello Ramirez (Txeloa).

HARI BIRU diskoa ez duzu berri-berria. Bere kantu bil-dumak denbora gainditu dizu, alta. Denbora joan –eta entzun– ahalean doinuok ondu egiten dituzu. Entzun eta ikusiren duzu, ikusiren eta sentituren dituzu.

Sentituren duzu Maddi Oihenart-en ahots sendo eta sotila. Bere ahotsaren eta musikariaren doinuekin batera ikusiren dituzu “egüna argitzen” eta egunaren hondarra “gaüaren ondoan” pausatzen.

Iturri tradizioaletatik edanen duzu, eta edanen duzu halaber iturri berrietatik. Bere (a)hotsa iturri zaharretatik heldu den ur berrituarena baituzu.

Hastapenean arraroa edo bitxia kausitu dezakezu, emaria berria baita. Bere zaporeak ez dizu beharbada aho sabaia gozatuko ez burmuina kilikatuko kuxian. Ez etsi. Segi entzuten eta ikusiren dituzu “osto berdeak higitzen” eta “gaüak gaüari gogozka egiten”.

Maddik ederki xaramelaraturtako kantuen letra

batzuk herrikoiak dituzu, bereak bestetzuk. Badira bes-talde, Itxaro Borda, Karlos Linazasoro eta Etxahun Topetenak. Ederrak guztiak.

Juantxo Zeberio, Txema Garcés eta Pello Ramirez musikariek –ez dira bakarrak– Maddiren ahotsa jazz airetan doitu dute xarmentki. Musikari apartak dituzu! Edonork bere etxerako nahiko lituzkeen musikariak, alajinkoa.

Etxeak *Hari biru* du izena, Xiberun duzu. Maddi Oihenart da nagusia. Aire zaharren eta doinu berrien jostuna duzu: (H)ari biru duzu, ari biru duzu... Bisita ezazu.

Soberaxko eleak dituzu eneak. Lankide baten hitzei esker berreskuratu berri dizut apalategian ahantzia nuen obra bikain hau.

Ez kexa, ez duzu berant. Oihenarten emari bitxi hau denboran gaindi ari duzu, aise. Aire hari eme duzu.



aralar EGUNA

Otsailaren 7an
Jai Alai pilotalekua
Gernika-Lumo

animatu eta hurbildu

ezkerreko **alternatiba** abertzalea  aralar

www.aralar.net